



ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2017ko abenduaren 11, astelehena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **11 de Diciembre de 2.017, lunes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNeko AZTERGAIAK

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2017.10.30).

2.- 2018 URTERAKO TAXI TARIFAK ONARTZEA.

3.- ELBARRENAKO SAIHESBIDEARI BURUZ EH BILDUREN MOZIOA.

4.- ZIZURKILGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA KATALUNIako INDEPENDENTZIA ADIERAZPENA DELA ETA.

5.- ALKATEAREN DEKRETUAk JAKINARAZTEA (182/2017tik 210/2017ra).

6.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

Zizurkilen, 2017ko abenduaren 5ean

Alkatea.

1.- APROBACION, SI PROcede, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (30.10.2017).

2.- APROBACION DE LAS TARIFAS DE TAXI PARA EL AÑO 2.018

3.- MOCION DE EH BILDU EN RELACION CON LA VARIANTE DE ELBARRENA.

4.- DECLARACION INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL EN TORNO A LA DECLARACION DE INDEPENDENCIA DE CATALUNYA.

5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (182/2017 al 210/2017).

6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 5 de Diciembre de 2.017

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2017ko ABENDUREN 11n EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DIA 11 DE DICIEMBRE
DE 2.017**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA/ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

Arkaitz Zaldua Jauregi (EH Bildu)

Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.)

Eva Usandizaga Mujika (EH Bildu)

José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)

Maria Angeles Lazcano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.)

Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hamaikako hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotziak partaidetzarekin. Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) eta Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN
AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA
(2017.10.30).**

Udalatzak, ahobatez erabaki du 2017ko urriaren 30ean egindako Bilkuraren Akta onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día once de Diciembre de dos mil diecisiete, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) y Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL
ACTA DEL PLENO ANTERIOR
(30.10.2017).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 30 de Octubre de 2.017



ZIZURKILGO UDALA

2.- 2018 URTERAKO TAXI TARIFAK ONARTZEA.

Gipuzkoako Taxi Elkartea (AGITAX)-ek eskatuta, Tolosaldea Garatzenek Tolosaldeko hiri eremuan 2018 urterako taxi zerbitzuen tarifik % 1,60 igotzeko proposamena aurkeztu du.

Proposamena ikusi ondoren, Udalbatzak hau onartzeko dagokion bozketa egiten du, emaitza honekin:

- Aldeko botoak: 9 (5 Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Auzkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

beraz, legezko gehiengo absolutu aldeko botoekin, onartu da:

Lehena.- 2018 urterako taxi tarifak honakoak izango dira:

2.- APROBACION DE LAS TARIFAS DE TAXI PARA EL AÑO 2.018

A petición de la Asociación Guipuzcoana del Taxi (AGITAX), Tolosaldea Garatzen ha presentado una propuesta para incrementar en un 1,60 % las tarifas unificadas de taxi en la comarca de Tolosaldea para el año 2.018

Vista la propuesta, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:


- Votos a favor: 9 (5 de Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

por lo que, con el voto favorable de la mayoría absoluta legal, se acuerda:

Primero.- Que las tarifas de taxi para el año 2.018 sean las siguientes:

TARIFAK TARIFAS	ABISARIA BAJADA DE BANDERA	KILOMETRO BAKOITZEKO POR KILOMETRO RECORRIDO	ZAIN EGONDAKO ORDUA POR HORA DE ESPERA
1. TARIFA	4,1049	1,0077	18,2726
2. TARIFA	4,6327	1,5330	26,9164

- Gutxieneko tarifik 1,5 kilometroko bidaia eta 5 minutuko itxarondenbora barne ditu.
- 1. tarifa lanegunetan aplikatuko da, 07:00etik 22:00etara
- La tarifa mínima incluye 1,5 kilómetros de recorrido y cinco minutos de espera.
- La Tarifa 1 es aplicable los días laborables entre las 07:00 y las 22:00 horas.



ZIZURKILGO UDALA

- 2. tarifa egun guztietan aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Igandeetan, erkidegoko eta tokiko normatibak araututako jaiegunetan eta larunbatetan, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.

Bigarrena.- Erabaki honen berri AGITAXi, Tolosaldea Garatzen S.A. eta Industria, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Gipuzkoako Lurralde Bulegora bidaltzea.

3.- ELBARRENAKO SAIHESBIDEARI BURUZ EH BILDUREN MOZIOA.

Akta honen I Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Udalatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 6 (5 EH Bildurenak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurrakako botoak: 0.
- Abstentzioak: 3 (3 E.A.J.-P.N.V.renak).

Beraz Udalatzak, botoen gehiengoz, aurkeztutako Mozioa onartzen du.

E.A.J.-P.N.V.k adierazi du abstentziora jo duela, ez mozioaren kontra dagoelako, baizik eta bere ustez mozioa aurkeztu aurretik Foru Aldundiarekin hitz egin behar zelako, gaia azaltzeko eta ikusteko zer asmo duen gai horri buruz. Behin urrats hori eginda, beren ustez Udalak eskaera formal bat aurkeztu beharko luke.

S.V.-E.S. taldeak adierazi du aldeko bota eman duela, baina logikoena izango litzatekeela mozio bateratu bat prestatzea Udaleko talde politiko guztien artean eta horrela aurkeztea Foru Aldundira.

- La Tarifa 2 será aplicable todos los días desde las 22:00 horas hasta las 7:00 horas. Se aplicará igualmente desde las 07:00 a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados.

Segundo.- Comunicar este acuerdo a AGITAX, a Tolosaldea Garatzen S.A. y la Oficina Territorial de Industria, Comercio, Consumo y Turismo de Gipuzkoa.

3.- MOCION DE EH BILDU EN RELACION CON LA VARIANTE DE ELBARRENA.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo I del presente Acta.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (5 de EH Bildu y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 3 (3 de E.A.J.-P.N.V.).

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Declaración presentada.

E.A.J.-P.N.V. manifiesta que su abstención no es debida a que esté en contra de la Moción sino por considerar que antes de presentar ésta, se debería haber hablado con Diputación para exponer el tema y ver qué intención tiene al respecto. Y una vez dado este paso, presentar una solicitud formal desde el Ayuntamiento.

S.V.-E.S. manifiesta que vota a favor, pero que lo lógico hubiera sido hacer una moción conjunta de todos los grupos políticos municipales y plantearla así ante Diputación.



ZIZURKILGO UDALA

EH Bilduk azaldu du duela bi urte bilera izan zutela Foru Aldundikoekin, eta gaiaz mintzatu zirela. Erantzun omen zieten ez zegoela dirurik horren obra handia egiteko, presa handiagoko beste inbertsio batzuk zituztelako esku artean.

Horregatik, eta kontuan hartuta herritarrok gogaituta daudela herri erditik hainbesteko zirkulazioa igarotzen delako, bere ustez Foru Aldundiari presioa egiten hasi behar zaio, lehenbailehen konpontzeko horren arazo larria.

4.- ZIZURKILGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA KATALUNIAKO INDEPENDENTZIA ADIERAZPENA DELA ETA.

Akta honen II Eranskinean jasota dago aurkeztutako Adierazpena.

Udalatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 5 (5 EH Bildurenak).
- Aurkako botoak: 1 (1 S.V.-E.S.rena).
- Abstentzioak: 3 (3 E.A.J.-P.N.V.renak).

Beraz Udalatzak, botoen gehiengoz, aurkeztutako Adierazpena onartzen du.

S.V.-E.S. taldeak adierazi du kontrako botoa eman duela, independentzia-adierazpena guztiz legez kanpokoa delako, eta, batez ere, herritar katalan askoren eskubideen kontra doalako.

Orain legezko hauteskundeak egingo dira, eta, hortaz, errespetatu egin beharko da hauteskunde horien emaitza.

E.A.J.-P.N.V.k adierazi du abstentziara jo duela, bere ustez Kataluniako herritarrek erabaki behar dutelako independentziari buruz, eta beren erabakia errespetatu behar delako.

EH Bildu manifiesta que hace ya dos años tuvieron una reunión con Diputación y plantearon el tema, pero recibieron la respuesta de que no había dinero para acometer semejante obras ya que había otras inversiones de mayor urgencia.

Por ello, y teniendo en cuenta que la ciudadanía está ya harta de soportar las molestias de tanto tráfico rodado por la mitad del pueblo, hay que comenzar a presionar a Diputación para que solucione cuanto antes este gravísimo problema.

4.- DECLARACION INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL EN TORNO A LA DECLARACION DE INDEPENDENCIA DE CATALUNYA.

La Declaración que se presenta es la que se refleja en el Anexo II del presente Acta.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 5 (5 de EH Bildu).
- Votos en contra: 1 (1 de S.V.-E.S.).
- Abstenciones: 3 (3 de E.A.J.-P.N.V.).

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Declaración presentada.

S.V.-E.S. manifiesta que su voto en contra se debe a que la declaración de independencia es totalmente ilegal y sobre todo, vulnera los derechos de muchos ciudadanos catalanes.

Ahora se van a celebrar unas elecciones totalmente legales, y, en consecuencia, deberá respetarse el resultado de las mismas.

E.A.J.-P.N.V. manifiesta que su abstención es debida a que considera que deben ser los ciudadanos de Cataluña los que decidan sobre la independencia y habrá que respetar el resultado de su decisión.



ZIZURKILGO UDALA

**5.- ALKATEAREN DEKRETUAK
JAKINARAZTEA (182/2017tik 210/2017ra).**

2017ko urriaren 30etik azaroaren 30era Alkateak sinatutako 182/2017tik 210/2017ra zenbakia duten Dekretuen berri eman da. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeita hamabost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.




**5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE
ALCALDIA (182/2017 al 210/2017).**

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 182/2017 al 210/2017 firmados por la Alcaldía entre el 30 de Octubre y el 30 de Noviembre de 2.017, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y treinta y cinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



I ERANSKINA -- ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA

ELBARRENAKO SAIHESBIDEARI BURUZ EH BILDUREN MOZIOA

Zizurkil hamarkada luzeetan jasaten ari da trafikoaren zama Elbarrenako erdigunetik.

2000ko hamarkadan egindako azterketen arabera, 10.000 inguru ziren egunero Zizurkilgo erdigunea zeharkatzen zuten ibilgailuak eta horietako asko Asteasuko poligonoetara doazenak dira, kamioi edo ibilgailu astunen kopurua oso handia delarik. Gainera egoerak okerrera egin du azken urteetan Abiadura Handiko Trenaren lanak direla eta.

Hamarkadetan projektua atzeratu ostean 2010eko abenduan saihesbidea egiteko konpromisoa hartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak baina projektua bertan behera geratu zen krisi ekonomikoa tarteko, egoera hobetzean berrekiteko asmoa azalduz. Uneotan, zerga aurreikuspenak krisi aurreko garaira itzultzen ari direla jakinazaten zaigunean, EH Bilduri iruditzen zaio Zizurkilek ezin duela hamarkadak itxaroten jarraitu. Zizurkilek nahikoa itxaron du jada.

Hori dela eta Zizurkilgo Udalbatzak honakoa onartzen du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen zaio legealdi honetan projektua berrekitea, Zizurkilek trafiko aldetik bizi duen egoera gordina aintzat hartuta. Eta gauzapena ez bada ere, bederen, epe zehatzekin bide orri bat marraztea legealdia amaitzerako.
- Bide horretan, Zizurkilgo Udalaren elkarlana eskaintzen zaio Foru Aldundiari izan litzkeen zalantza eta xehetasunak adosteko.
- Ebazpen hau Gipuzkoako Foru Aldundira helaraziko da eta gaiari buruz hitz egiteko bilera bat eskatuko da.

MOCION DE EH BILDU EN RELACION CON LA VARIANTE DE ELBARRENA

Durante décadas, Zizurkil lleva soportando una gran densidad de tráfico por el centro de Elbarrena.

Teniendo en cuenta los estudios realizados en la década del 2.000, cada día cruzaban el centro de Zizurkil unos 10.000 vehículos, y muchos de ellos eran vehículos que se dirigían a los polígonos industriales de Asteasu, la mayoría camiones y vehículos pesados. Además, la situación ha empeorado estos últimos años a causa de las obras del Tren de Alta Velocidad.

Después de haber retrasado el proyecto durante décadas, en diciembre de 2.010 la Diputación Foral de Gipuzkoa adoptó el compromiso de realizar la variante, pero el proyecto quedó en suspenso a causa de la crisis económica, con la intención de ponerlo en marcha de nuevo cuando mejorara la situación. En estos momentos, cuando se nos comunica que las previsiones tributarias están volviendo a los niveles anteriores a la crisis, EH Bildu cree que Zizurkil no puede seguir esperando durante décadas. Zizurkil ya ha esperado suficiente.

Por ello, la corporación municipal de Zizurkil aprueba lo siguiente:

- Solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que ponga en marcha de nuevo el proyecto esta legislatura, teniendo en cuenta la cruda situación que está soportando Zizurkil a causa del tráfico. Si no es posible la ejecución del proyecto, solicitamos, por lo menos, que se elabore una hoja de ruta con fechas concretas antes de que finalice la presente legislatura.
- El Ayuntamiento de Zizurkil se muestra dispuesto a colaborar con la Diputación Foral para aclarar cualquier duda y acordar cualquier detalle.
- Remitir esta resolución a la Diputación Foral de Gipuzkoa y solicitar una reunión para tratar el tema.



ZIZURKILGO UDALA



ZIZURKILGO UDALA
2017 URR. 30
SARREREN ERREGISTROA
Zenbakia 1068

II ERANSKINA -- ANEXO II


Zizurkilgo Udalaren Adierazpen Instituzionala


Kataluniako independentzia adierazpena dela eta

Carles Puidgemont Presidentak Kataluniako independentziaren adierazpena egin eta gero, erabaki historiko horrek Kataluniarentzat duen garrantziagatik eta baita Euskal Herriarentzat ere duen esanahiagatik, ZIZURKILGO UDALAK honakoa adierazten du:

- 1.- Aitorta erakutsi nahi dio Kataluniako errepublikari.
- 2.- Exijitzen du Kataluniako herritarren borondatea errespetatzea, zeina behin eta berriro hautestontzietan, modu demokratikoan, adierazi den.
- 3.- Zorionak ematen dizkie Kataluniako herritarrei, gizarte eragileei, erakundeei, alderdi politikoei eta errealitate hori posible egiten duen orori.
- 4.- Zorionak ematen dizkie bereziki, azken urteotan lan eta lan aritu diren udal hautetsi guztiei, erakutsi duten kemen eta konpromisoagatik. Eredu dira guretzat.
- 5.- Aldarrikatu nahi du Estaturik gabeko nazio guztiak euren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea.
- 6.- Onartzen du Adierazpen hau Kataluniako Generalitat-era, Kataluniako Parlament-era eta Kataluniako Independentziaren aldeko Erakundera (AMI) igortzera.

Zizurkil, 2017ko urriaren 30ean





ZIZURKILGO UDALA



Declaración Institucional del Ayuntamiento de Zizurkil en torno a la declaración de Independencia de Catalunya

Tras la declaración de Independencia del President Carles Puigdemont, y teniendo en cuenta la importancia que dicho acto tiene tanto para Catalunya como para Euskal Herria, este AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL quiere expresar lo siguiente:

- 1.- Este Ayuntamiento quiere mostrar su reconocimiento a la república de Catalunya.
- 2.- Este Ayuntamiento exige que se acepte la voluntad del pueblo de Catalunya, quien se ha expresado a través de las urnas de manera democrática.
- 3.- Este Ayuntamiento felicita a ciudadanos, asociaciones, agentes sociales, instituciones, partidos políticos y demás personas de Catalunya que han contribuido en este proceso.
- 4.- Este Ayuntamiento quiere felicitar especialmente a todas y todos esos electos que durante los últimos años han demostrado una increíble valentía y compromiso. Sois un ejemplo para nosotras y nosotros.
- 5.- Este Ayuntamiento quiere reivindicar que todas las naciones sin Estado tienen derecho a decidir su futuro libremente.
- 6- Este Ayuntamiento trasladará esta declaración a la Generalitat, Parlament y a la Asociación de Municipios por la Independencia (AMI).

Zizurkil, 30 de Octubre de 2.017

